



ARANTZABELA IKASTOLA
Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa: 945 286063 Faxe: 945 253982

HIZKUNTZA

PROIEKTUA



ARANTZABELA IKASTOLA

Aurkibidea

1.-ARANTZABELA IKASTOLAREN HISTORIA	3
• HEZKUNTZAREKIKOAK.....	3
• TEKNOLOGIKOAK.....	3
• INGURUAREKIKOAK.....	4
2.-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN OINARRIZKO HELBURUAK.....	4
3.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA, EZAUGARRIAK ETA ARLOAK.....	4
HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA	4
HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK.....	4
• KOHERENTZIA.....	4
• EGOKITASUNA.....	4
• LEGEZKOTASUNA.....	5
• INTEGRALA ETA PARTE-HARTZAILEA.....	5
• DINAMIKOA ETA BIZIA.....	5
4.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN KOKAPENA.....	5
5.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN IKUSPEGIA ETA HELBURUAK	6
IKASTETXEAREN HIZKUNTZA- HELBURUAK	6
IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PLANTEAMENDUA	6
- Euskara	7
- Gaztelania.....	7
- Ingelesa	7
HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN.....	7
GELA BARRUKO HIZKUNTZAK.....	7
HIZKUNTZA BAKOITZAREN ORDU KOPURUA ETA HASIERAKO ADINA	7
IKASLEAK TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK.....	9
2 ETA 3 URTEKO IKASLEAK	9
1GO MAILAKO IKASLEAK	9
IKASTURTEAN ZEHAR IRISTEN DIREN IKASLE BERRIAK.....	9
HEZKUNTZA ERREFORTZUA ETA LAGUNTZA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK	10
HIZKUNTZA PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA.....	10
PLAN ESTRAGIKOA	12
EBALUAZIO PROZESUA	16
ZER EBALUATU	16
NOIZ EBALUATU	16
6.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN JARRAIPENA	16
NOLA EBALUATU	17

1.-ARANTZABELA IKASTOLAREN HISTORIA

Hirurogeita hamargarren hamarkadan Arabako Foru Aldundiak ikastola sarea lortzeko plangintzari ekin zion gure lurraldean euskara bultzatzeko asmoz.

Plangintza horren barruan, Aldundiak gaur egun gure ikastola dagoen eraikuntza altxatu zuen eta 1983-84 ikasturtean bertan hasi zen lanean. Ikasturte horretan eskolaurreko (3, 4 eta 5 urtekoak) eta 4. mailara bitarteko Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasleek ekin zioten. Berauek hezteko, 13 irakasle eta zuzendaria hasi ziren lanean. 13 irakasle horietatik batzuek lanean jarraitzen dute bertan; beste batzuek beranduago ekin zioten eta beste batzuk denbora mugatu batean arituta joan ziren; baina guztiek egin dute zerbait ikasleen prestakuntzaren eta ikastolaren funtzionamenduaren alde.

Lehen eraikuntzak funtzionatu zuen lehen hiru ikasturteetan ikasle guztiek bertan ikasten zuten, Eskolaurreko Hezkuntzarako ondoko eraikuntza egin arte, 1986-87 ikasturtean ekin ziona.

Hasieran gure ikastola B ereduan hasi zen, zeinaren bitartez gai guztiak euskaraz ikasten baitziren, matematika eta irakurketa-idazketa izan ezik. Hiru urte igaro ondoren, matematika euskaraz irakasten hasi zen eta urte batzuk geroago hezkuntza eredu aldatu zen, D ereduan ikasteari ekinez.

Gure ikastolaren ezaugarri bat beti izan da gure irakasleen ahaleginak ikasle heziketa maila hobetzarren. Horren ondorioz, gure ikastola aitzindari izan da ondoren beste ikastetxe publiko batzuetara zabaldu izan diren hezkuntza proiektu askotan. Hauetariko batzuk aipatzearren, honako hauek: ingelesa erakusten hastea lau urtekin (1995-96 ikasturtean), informatika teknologia berriei erlazionatuak (Premia programa, Testu Telematikoak...) 2015-2016an IKT ikastetxearen 3. Heldutasun maila lortu genuen. Gelak arbel digitalez hornitzen ari dira eta gaur egun Sare Hezkuntza gelan proiektua aurrera eramaten ari gara.

Lanean aritu garen 35 urte hauetan denetariko aldakuntzak izan ditugu:

- **HEZKUNTZAREKIKOAK.** Ikastola funtzionatzen hasi zenean, 1970ko Hezkuntza Lege Orokorriari lotuta geunden, zeinaren bitartez, gure ikastolan Eskolaurreko Hezkuntza eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra ematen baitziren. Ikasleak 3 urtetik 14 urtera bitartean egoten ziren ikastolan, ondoren institutura pasatzen zirelarik. Baina 1996an LOGSE delakoa jarri zen indarrean eta hezkuntza sistema aldatu zen: Eskolaurreko Hezkuntza Haur Hezkuntza izatera pasatuko zen eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, Lehen Hezkuntza. Hezkuntza sarearekikoak. 90. hamarkada hasieran gure ikastola, ordura arte Arabako Aldundiari zegokiona, Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastola publiko bihurtu zen.
- **TEKNOLOGIKOAK.** Arlo guztietan aldaketa esanguratsuak egon dira, baina hauek dira irakasleei gehien eragin dietenak. Urte hauetan guztietan gure ikasleekin eta ikasleentzat lana prestatzeko berrikuntza asko egon dira. Gaur egun, informatika aroan, ordenagailuak eta arbel digitalak baitira gure lana eta ikasleekikoa prestatzeko tresna nagusiak.

- **INGURUAREKIKOAK.** Orain dela gutxi arte gure ikastola hiri kanpoan zegoen. Bertatik Gasteiz ondoko zenbait mendi ikusten ziren. Baina Salburua auzoa
- eraikitzearen ondorioz, aldaketa handia izan da; dagoeneko ez gaude hiritik kanpo eta inguruko ikuspegia guztiz ezberdina da, etxe handiz inguratuta baikaude.

2.-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN OINARRIZKO HELBURUAK

- Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duen hezkuntza.
- Eskola komunitateko partaide guztien (ikasle, familia, ez dozente, irakasle...) arteko harremanak errespetuan oinarritzen dituen hezkuntza.
- Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko lagungarria izango den prestakuntza integrala ahalbideratzen duena.
- **Ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen ezagupena bermatzen duena, euskararen erabilera bultzatuz.**
- Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultura-nortasuna mamitzen laguntzen duena.
- Ikasleengan ohitura intelektualak, lan-teknikak eta jakintzak garatzea.
- Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzeta eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa

3.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA, EZAUGARRIAK ETA ARLOAK

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Arantzabela Ikastolaren Hizkuntza Proiektua, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da.

Beraz, gure ikastetxeko hizkuntza-errealitatetik abiatuta, eta errealitate horren hausnarketaren ondorio gisa, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak zehaztu nahi ditugu dokumentu honetan.

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntza Proiektuak marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete nahi ditu :

- **KOHERENTZIA.** Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentzia izan nahi du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea eta ikuspegia jasotzen dituen gero, Hizkuntza Proiektuan hartzen diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu.
- **EGOKITASUNA.** Gure testuinguru sozio-ekonomiko-linguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntza heziketaren ibilbidea garatu nahi du.

- **LEGEZKOTASUNA.** Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartuta.
- **INTEGRALA ETA PARTE-HARTZAILEA.** Hizkuntza Proiektuak eragina izan nahi du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan; komunitate hori osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabera gauzatu behar dira bertan formulatutako irizpideak. Jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometitzen dituzte.
- **DINAMIKOA ETA BIZIA.** Hastapeneko bertsio batetik abiatuta, ondorengo ikasturteetan egin eta egingo diren urteko plangintzen ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasotzen ditu Hizkuntza Proiektuak.

4.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN KOKAPENA



Hiru Proiektu hauek guztiz erlazionaturik daude, hortaz, etengabeko elkarreraginean ari dira, bata bestea elikatzen, grafiko honetan irudikatzen den moduan.

Hizkuntza Proiektuaren zeregina da, hain zuzen ere, Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea.

Halaber, Hizkuntza Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena dute ikastolaren Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, are gehiago, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza ororen tresna nagusia delako.

5.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN IKUSPEGIA ETA HELBURUAK

Arantzabela ikastolak kalitatezko hezkuntza euskalduna du bere helburua.

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA- HELBURUAK

- Gure ikastetxeak heziketa euskalduna eman nahi die ikasleei, erreferentea delako euskararen normalizazio-prozesuan inguruko komunitatean ; Horretarako euskara modu egokian jakitea eta euskal kultura sendotzea garrantzitsua ikusten dugu, Ikastetxeak gizabanako euskaldunak eta euskararekiko jarrera baikorra dutenak hezi nahi ditu.
- Euskara guztiok batzen gaituen hizkuntza dela kontuan izanda ere, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera bermatu nahi ditu, ikasleak eleaniztunak izan daitezen.
 - Ikastetxean, hizkuntzen ezagutza eta erabilera lantzea eta aztertzea gain, hizkuntzei beraiei ematen zaien balioa ere kontutan hartuko da.

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PLANTEAMENDUA

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan zehar haurrak garatu beharreko ezinbesteko gaitasuna da hizkuntza. Pertsonak hizkuntza ekintzen bidez jarduten dute munduan, testu inguru eta egoera anitzetan, hainbat helburu lortu nahian. Beraz, hizkuntza ekintzek erregulatzen dituzte gisa-ekintza guztiak eta munduaren eta pertsonen arteko harremanak ere ,antolatzen dituzte.
- Metodologiari dagokionez hizkuntzen irakaskuntzak **esanguratsua** eta **eraikitzailea** izan behar du. Horretarako gure eskolan **proiektuak** eta interesguneak dira irakaste-ikaste prozesuaren ardatza. Non testua dute azken ekoizpen moduan, hau da, testuan oinarrituko gara. Proiektu eta interesgune hauek beraz, haurren errealitateari egokituak eta haien interesen araberakoak dira.
- Haurra eskolara datorren momentutik, hizkuntzak **komunikatzeko** duen garrantziaz jabetzen da, egoera desberdinei aurre egiteko eta baita bere **sentimenduak adierazteko** ere. Ipuinak, antzerkiak, abestiak edo eta beste gainontzeko literatur iturriak aurkeztuz eta sortuz ahozko eta idatzizko komunikazioan trebatzen saiatzen gara, beti ere kontuan hartuz ikaslea protagonista dela.
- Komunikazio ikuspegia, hizkuntza bat arau sistema hutsa baino gehiago da: Hizkuntza esanahia sortzeko tresnarik garrantzitsuena da, eta erabiliz ikasten da. Testuen bidez Testu inguru aberatsa non testu genero anitzak lantzen dira eta hizkuntza gaitasunaren ardatza izango da.
- Aurrekoa kontuan izanik, irakasle guztiak gara hizkuntza irakasleak, hizkuntza ezagutzak lantzeko eta bideratzeko tresna bait da. Beraz, arlo guztietako ardatza, landu eta kontuan izango duguna.
- XXI.mende honetan ezinbestekoak dira teknologia berriak. Hau dela eta **IKT-ak** hizkuntza garatzeko beste tresna gisa erabiliko ditugu.

- **Euskara** izango da ikasgai eta ikasbide, maila eta kurtso guztietan. Gure ikasleen gehiengoak euskara daukate bigarren hizkuntza bezala. Hots murgiltze-programen prozedurak eta estrategiak erabiliko ditugu, hau da hizkuntza funtzionaltasuna eta edukien bidez ikastea. Komunikazio hizkuntza izango da ikasleekiko harremanetan, ahal den familiekin, kanpo harremanetan eta instituzioekin.
- **Gaztelania** ikasgai izango da LHko lehenengo mailatik aurrera. Gela barruan landu beharko den arloa da, eta arloari dagokion harreman-hizkuntza gaztelania izango da.
- Horretaz gain, familien tipologia eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, gaztelaniak eremu instituzionalean ere presentzia izango du: guraso-harremanetan eta kanpo-harremanetan.
- **Ingelesa** gela barruan landuko den arloa da, 4 urtetik 12 urte bitarterako ikasmailetan, eta arloari dagokion harreman-hizkuntza ingelesa izango da.-

Horrez gain, hizkuntza hori indartzeko asmoz, 6. mailan astebeteko ingeles barnetegia antolatzen da ikastolatik at. Ekintza hau gauzatzerakoan, ezinbestekoa da eremu horretan eta kanpo-harremanetan ingelesez aritzea.

HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN

Arantzabela Ikastolak egina duen plangintzaren arabera, hizkuntza bakoitzak, ikastola barruan, izan beharko dituen erabilera-eremua eta funtzioa honako hauek dira:

Hizkuntzen erabilera-eremuak

EREMUAK		HIZKUNTZAK		
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA
GELA	PEDAGOGI KOA	X	X	X
BARRUKOA	GELAZ KANPOKO A	X	x	X
ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZ IOA	INSTITUZIO NALA	X	X	
	KANPO EREMUA	X	X	

GELA BARRUKO HIZKUNTZAK

HIZKUNTZA BAKOITZAREN ORDU KOPURUA ETA HASIERAKO ADINA

Arantzabela Ikastolak, hizkuntzekiko finkatu dituen lorpen-mailak lortzeko asmoz, hizkuntza bakoitzari ondoko ordu kopurua esleitu dio ikastola barruan:

Hizkuntzen banaketa etapaka:

ARANTZABELA		HH - LH	
HAUR EZKUNTZA	EUSKARA		Dena
	INGELESA		4 eta 5 urteko geletan 2 saio astean
	GAZTELANIA		Ez
1. ZIKLOA	1. Maila	Euskara	24 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	2 saio astean. Ahozko hizkuntza lantzeko
		Ingelesa	3 saio astean.
	2. Maila	Euskara	23 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	3 saio astean. Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko.
		Ingelesa	3 saio astean.
	3. Maila	Euskara	21 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	4 saio astean. Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko.
		Ingelesa	3 saio astean.
2. ZIKLOA	4. Maila	Euskara	21 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	4 saio astean. Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko.
		Ingelesa	3 saio astean.
	5. Maila	Euskara	21 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	4 saio astean. Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko.
		Ingelesa	3 saio astean.
	6. Maila	Euskara	21 saio astean. Euskara, Matematika, Natura, Gizarte, Musika, Plastika, Soinketa, Baloreak.
		Gaztelania	4 saio astean. Ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko.
		Ingelesa	3 saio astean.

IKASLEAK TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

2 ETA 3 URTEKO IKASLEAK

A) Mantenu eredu: Etxeko hizkuntza euskara denean, hau da, ama edo aitarekin euskaraz mintzatzen badira eta ikastolan hasterakoan euskaraz moldatzeko gai direnean. Talde honen helburua etxean ikasitako hizkuntza horretan trebatzen jarraitzea da

B) Murgiltze eredu: Etxeko hizkuntza euskara ez denean. Talde honen helburua murgiltze sistemaren bitartez bigarren hizkuntza baten ikasketa-prozesuan abiatzea da. Haur Hezkuntzan talde honi prozesoa errazteko laguntza berezia ematen zaio.

Gaur egun banaketa hau egitea oso zaila suertatzen denez, etxeko hizkuntza euskara duten haurrek, ahal den neurrian, gela berean elkartzen ditugu bidezkoa denean hizkuntzaren trataera berdina eginez. Horrela, etxeko hizkuntza euskara duten haurrek neurri handi batean harremanak euskaraz izatea mantendu ahal izango dute. Kontuan izan behar baitugu nagusiki Gasteizko inguru soziolinguistikoan gaztelera dela indarra duena bai giza-harremanetan bai komunikabideetan, eta ikasle gehienek etxeko hizkuntza gaztelera dutenez haur horiek une bat gehiago izango dute euskaraz mintzatzeko. Bestalde, immigrazioa dela eta, kultura ezberdinetako familia kopurua gure ikastetxearen zonaldean gehituz doanez, talde banaketa egiterakoan ezinbestekoa da baldintza hau kontuan hartzea talde orekatuak sortzeko. Prozedura berdina jarraituko genuke edonolako hezkuntza premia bereziak adierazten duten ikasleekin. Hau guztia kontuan izanik etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen taldea mantendu ahal izateko ikasturte bakoitzean suertatzen den egoeraren arabera aztertu eta erabakia hartuko da.

Bi taldeekin programazio berberaz abiatzen gara baina, gure lana eraginkorragoa izan dadin, pedagogia-tratamendua berezia da, haur erdaldunen ikasgeletan hizkuntzaren kontestualizazio handiagoaz eta norberaren baliabide zehatzak abian jarritz.

1GO MAILAKO IKASLEAK

2018 -2019 ikasturtean hasita ondorengo irizpideak jarraituz osatuko ditugu taldeak:

- Neska mutil kopuru parekatua
- Hezkuntza berezikoak banatu
- Ume berriak banatu
- Bikiak banatu(gurasoekin adostuta)
- Euskara maila parekatua
- Harreman onak mantendu
- Jarrera desegokiak kontuan eduki
- Arazo akademikoak kontenplatu
- Adina kontenplatu (lehen seihilabetekoak eta 2.ekoak nahastu

IKASTURTEAN ZEHAR IRISTEN DIREN IKASLE BERRIAK

- Gela orekatuak, ikasle kopuru parekideak.
- Neska eta mutilen arteko oreka.
- Etorkin kopuru parekidea.

HEZKUNTZA ERREFORTZUA ETA LAGUNTZA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

- 2 urteko geletan irakasle laguntzaile bat goizez sartuko da bi geletarako.
- Lehen Hezkuntzako lehen mailan irakurketa-idazketa prozesuan beste irakasle bat sartuko da 4 ordu astero gela bakoitzeko.
- Lehen Hezkuntzako beste mailetan 2 edo 3 saio jasotzen dituzte PT edo Aholkulariaren bitartez euskara eta matematika indartzeko.
- Laguntza guztiak gela barruan egiten saiatuko gara. Gelatik atera behar baldin bada umeren bat zenbait faktoreen arabera izango da, laguntza taldea eta tutorearen adostasuna dela medio.
- Lehen Hezkuntzako tutoreek laguntza emango dute pareko gelan euskara indartzeko(saio bat).

Hori aurrera eramateko eta helburuak lortzeko gure:

HIZKUNTZA PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Haur eta Lehen Hezkuntzan haurrak garatu beharreko **gaitasun** garrantzietarikoak dira hizkuntza. Eskolak horretan trebatu behar du ikaslea, eta horregatik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoaren esparruan, hezkuntza-sistema elebiduna eta eleanitza sendotzeko helburua izango duten neurri egokiak hartuko ditu.

Haur Hezkuntzan ahozkoahizkuntza izango da ikasketaren oinarria, gelan hitz egiten den guztia euskaraz izango da. Helburua, beraz, ahozko gaitasun komunikatiboa gero eta aberatsagoa izatea izango da.

Haur Hezkuntzan ahozkoak garrantzi nabarmena duela kontuan izanik (antzerkien bidez, ipuinen bidez, jolasen bidez...) eta elkarrizketa izango dela ikaskuntza prozesuaren giltza, taldeen bikoizketak egitea izango da ikasturte guztietan xedea.

Dena den, ikastola mailan eta hain zuzen 1. Zikloan, ahozkoa ardatza izango da komunikazioa eta ezagutzak barneratzeko. Horrela, Haur Hezkuntzan hasitako prozesuari jarraipena emango zaio. Bikoizketetan hiztegia, esaldien ezaugarria, ulermena eta komunikatzeko behar diren testuak landuko dira. Bikoizketetan aukera gehiago daukate elkarrekintza bideratzeko eta ulermena ziurtatzeko.

Ikastolara datorren momentutik, **hizkuntzak komunikatzeko** duten garrantziaz ohartu araziko diogu, egoera desberdinei aurre egiteko, baita bere sentimenduak adierazteko ere. **Ipuina , antzerkia, abestia edo eta beste gainontzeko literatur iturriak** aurkeztuz eta sortuz ahozko eta idatzizko komunikazioan trebatzen saiatuko gara, beti ere kontuan hartuz ikasleak protagonistak izango direla, **irakasleak hizkuntza guztien hurbileko eredu** garelako ahaztu gabe.

Honetarako, bideratuko ditugun **estrategiak**, eskola inguruak duen **errealitateari egokituak** izango dira. **Euskarari arreta berezia** eskainiko diogu eta **honegatik Euskara izango da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola-eremuan.** Hau da, ikasleak euskalduntasunean eta euskaraz ardatz tutorearen eleaniztasunean hezi nahi ditugu. Kontuan hartuko dugu Haur Hezkuntzan sartzen diren ikasle gehienak euskaraz lehenengoz hasten direla murgiltzen, gehienetan, etxeko hizkuntza gaztelania edo beste atzerriko hizkuntza bat delako. **Ikasleak jolastuz** hizkuntzetan ahozko eta idatzizko **ulermen- eta adierazpen-gaitasunak** eskuratzen hasiko dira. **Helburua da, hizkuntzak eremu guztietan erabilteza, egoera pertsonalak, sozialak edo akademikoak.** Halaber, **Elebitasuna** oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortzeko helburua erdiesteko, ikastolak

atzerriko hizkuntzak ikas eta erabil daitezzen indartzeko neurriak ezarriko ditu ere Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera.

Haur eta Lehen Hezkuntzan euskara indartzeko hainbat ekintza osagarri egiten dira:

- Zine arteak ezagutu eta haietaz gozatu
- Ikasleengan piztea entzuteko gaitasuna eta musikarekiko sentsibiltatea
- Antzezte arteak ezagutu eta haietaz gozatu
- Gasteizko hiria, historia eta eraikinak ezagutu
- Zientziaz gozatu
- Euskara sustatu eta elkar bizitzaren oinarriak ezagutzeko Lehen zikloan 2 eguneko irteera eta 2. Zikloan 3 eguneko
- Bertsolazitza Lehen Hezkuntzako 5. mailan. Hamabostean behin, bertsolari bat gelara etortzen da bertsolaritza lantzerako, horrela ikasleen hizkuntza-baliabideen sorta aberastuz. Bertsolaritza eta bertsolariak ezagutzeko, Euskal Herriko tradizioa eta oraina uztartzen ahalegintzen gara.

Ezin da ahaztu gaur eguneko **gizartea eleanitza eta kulturantza** dela, eta, beraz, eskolak nahitaez lortu behar dituela herritar eleanitzak. Horregatik, mundu honetan nahitaezkoa da hizkuntza ofizialez gainera hizkuntza global esaten zaienetako bat ikastea, era horretan errazagoa izan dadin jendeak elkar ezagutzea, ideiak trukitzea eta kulturek elkar ulertzea. Atzerri-hizkuntzen komunikazioan, ikasleak oinarriko trebetasun batzuk bereganatu behar ditu, hainbat egoera komunikatibo egunerokotan eta mugatutan. Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gainera, pertsona eleanitzak hezi behar ditugu, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar bezala dakitenak

Alfabetizazio prozesua dela eta, Haur Hezkuntzan hasiko da, euskaraz egiten. Ahozkoa oinarri gisa testuak ekoizten eta ulertzen, idatziaren grafia, fonema, kontzientzia fonologikoa ... landuko dira.

6-8 urterekin hizkuntza idatziak garrantzia edo lanketa sistematikoagoa egingo da, beti ere ahozkoan oinarrituta, eta euskaraz izango da.

Dena den, 1. Mailako hirugarren hiru hilabetean gaztelania landuko da bai ahozkoa zein idatzizkoa, baina ahozkoa oinarri gisa.

(Ikusi irakurketa plana)

PLAN ESTRATEGIKOA 2019-22 (Ikusi eskolako irakurketa plana)

Hiru urte hauetarako irakurketa izango da ikastolako erronka. Irakurketa planean zehaztuta dago planifikazioa.

PLAN ESTRAGIKOA

IRAKURTZEN IKASI
Alfabetizazio prozesua garatzeko ibilbidea adostu HH eta 1. Zikloko irakasleen artean non lantzen ez diren atalak garatuko dira 2 urtetik 9 urte bitartean.

JARDUERAK	Arduraduna/denboralizazioa	Baliabideak	Adierazleak
Irakasle berriekin alfabetizazio prozesua nola lantzen den etapa bakoitzean konpartitu.	Ziklo, etapetako arduraduna(H.H. eta 1. Zikloa) Irailan zehar/ Ikasturte hasieran	-Materialak -Irakurketa txostena	Irailaren azken ostegunerako konpartituta
Orain arte egiten ari garena idatziz jaso eta ditugun ahuleziak detektatu. Denon artean adostuko dugu non jasoko den.(Irakasle karpeta, 2019-20 ikasturtea, Irakurketa Plana)	Lehenego hiruhilean. Ziklo, etapetako arduraduna(H.H. eta 1. Zikloa) Tutoreak		Abenduan, egina egongo da oporrak baino lehen. Urriaren amaieran egiten ari garena errebisatu
Etapen artean egiten ari garena konpartitu.	Hiruhilero etapen arteko bilera. Ikasketa burua	-Ipuinak,ekintzak, irakurgaiak, ariketak...	Urtarrileko lehen asteazkena, martxoko bigarrena eta ekainaren lehenengoa
Materialak prestatu/egokitu alfabetizazio prozesurako	Tutoreak	Ahozko zein idatzizko testuak	Ekainean

IKASTEKO IRAKURRI H:H:, 1.-2. eta 3.Zikloan

Hiru hizkuntzetan, mota guztietako testuak landu faseen arabera, irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren, ikasleen interesak kontuan hartuz.

JARDUERAK	Arduraduna/denboralizazioa	Baliabideak	Adierazleak
Etapa eta zikloka testu motak aukeratu, hizkuntzen arabera	Tutoreak, gaztelania eta ingeleseko irakasleak	Argitaletxe desberdinekoak, Internet-tik hartutakoak Beste batzuk	
Testuak hizkuntzaka eta euskarrika sailkatu eta ikastola mailan sekuentzializatu.	Tutoreak, gaztelania eta ingeleseko irakasleak	Curriculum	Kurtso bukaeran gutxienez hizkuntza bakoitzean 3-4 testu motaren arabera aukeratu dira Hiru hizkuntzetan testu batzuk aukeratu dira.
Digitalki sistematizatu	Tutoreak, gaztelania eta ingeleseko irakasleak	Sarean sortzen den karpeta batean (irakasle karpeta,2019-20 ikasturtea, Irakurketa plana).	Ea sistematizatu den begiratu.

IKASTEKO IRAKURRI H.H, 1.-2.eta 3. ZIKLOAK

Teknikak eta estrategiak ikasleekin aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko

JARDUERAK	Arduraduna/denboralizazioa	Baliabideak	Adierazleak
Irakasleen formazioa irakurketa estrategien inguruan	Ikasketa burua	Berritzegunea	Formazioa egin ondoren baloratu gelarako erabilgarria izan den
Zikloka estrategiak zehaztu eta jarduerak prestatu testu mota desberdinak kontuan hartuta.	Tutoreak, gaztelania eta ingeleseko irakasleak Hiruhilabete bakoitzeko azken asteko koordinatzaile bileran	Jarraibide edo autoerregulazio fitxak. Txartelak eta horma-irudiak. Testu mota ezberdinak.	Urtea amaitzean ziklo bakoitzean gutxienez 3 testu prestatu dira
Ikasleekin estrategiak aplikatu eta ebaluatu.	Tutoreak, gaztelania eta ingeleseko irakasleak eta ikasleak	Errubrikak	Proiektu bakoitzaren bukaeran baloratu erabilitako estrategiak aproposak izan diren
Ondorioak atera eta idatzita utzi.	Irakasle arduradunak, ikasketa buruak		Kurtso bukaeran baloratu ea orokorrean irakurketa hobetu den erabili diren teknikak eta estrategiekin

IRAKUR ZALETASUNA H.H., 1.,2. eta 3.Zikloak

Gelako liburutegia berriztu irakur zaletasuna bultzatzeko

JARDUERAK	Arduraduna/denboralizazioa	Baliabideak	Adierazleak
Irakasleen formazioa		-Galtzagorri elkarte	Formazioa egin ondoren baloratu ea aproposa izan den irakur zaletasuna bultzatzeko eta gelako liburutegiak antolatzen.
Gelako liburuak aztertzea eta berritzea.	Ikasurte hasieran Tutoreak	Gelako liburuak Liburutegiko liburuak	
Irakurketa saioak antolatu irakurle desberdinekin: irakasleak...	Tutoreak	Testuak Irakasleak Internetetik hartutako ereduak	
Gelako ordutegietan irakurketa saio bat jarri.	Tutoreak	Astean saio bat (ordu 1)	Hi Hiruhilabete bakoitzaren azken koordinatzaile bileran ekintza baloratu
Gurasoen bileretan orientabideak eman.	Tutoreak kurtso hasieran egiten den gelako bileran orientabideak azaldu eta eman, baita bakarkako bileretan	Orientabideak	Orientabideak eman dira bileran
Motxila ibiltariak(2. Zikloa)	Tutoreak/gurasoak	Ikasleek gustuko dituzten liburuak etxetik ekarrita	
Liburu mailegua	Tutoreak	Etxeko eta bibliotekako liburuak	
Gela irekietan H Hko liburutegia ireki	Koordinatzailea(H H)	Biblioteka	Liburutegia ireki eta erabili da.

EBALUAZIO PROZESUA

ZER EBALUATU

Ebaluatzeko garaian, hizkuntza tresna moduan ezagutzak barneratzeko, baliabidea dela kontuan izanik, ezagutza horiek nola komunikatzen diren kontuan izango da. Hau da, arloetan hizkuntzaren garapena aintzat izango dugu.

Euskaraz ematen diren arloetan, ahozkoa, idatziaren ulermena... baloratu edo kontuan izango dugu.

Hizkuntza guztietan baina maila desberdinetan ikasleek bost dimentsioetan bereganatutako hizkuntza ezagutza eta estrategiak hartuko ditugu kontuan.

Haurra ebaluatzeaz gain, irakaste prozesuan erabilitako baliabideak (materialak, pertsonalak edo denborazkoak) ikaslearentzat esanguratsuak eta eraginkorrak izan diren ebaluatuko dugu. Salbuespen gisa, hizkuntza irakaste prozesuan aldaketarik balego (metodologia alegia) denbora luzeagoa emango diogu emaitzak hobe aztertu ahal izateko.

LMHko ebaluazio diagnostiko frogaren emaitzek, hobekuntza planak egiteko aukera emango digu. Honela gerta daitezkeen ahuleziak konpondu eta ongi bideratzen saiatu ahal izateko.

NOIZ EBALUATU

Hiru urratsetan egingo dugu ebaluazioa:

1-Hasierakoa ebaluazioa: Hizkuntza komunikazioaren aurreko ezagupen maila neurtzen duena hizkuntza arloetan eta gainontzekoetan.

2-Ikaste prozesuaren ebaluazioa. Hau da jarraian egindakoa eta ikaste prozesuan zehar neurtzen duena.

3-Azken ebaluazioa: Denbora jakin batetan aplikatzen dena. Unitate bakoitzaren amaieran edo eta hiruhilabete bakoitzaren amaieran egiten dena. Ikasleek kalifikazioa jasotzen dute bai zenbakiz bai nota baten bitartez. (Ezagutza, erabilera, partehartzea eta jarrerak)

6.-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN JARRAIPENA

2019-22 ikasturteetan, irakaslegoa taldeka banatuko gara formakuntza saioetan proiektuen eta interesguneen bidez lan egiteko. Hizkuntza proiektuaren jarraipena (euskara, gaztelera eta ingelera) egingo dugu. Lan-talde hau honako irakasleek osatuko dute:

- Zikloko irakasleak

- Zuzendaritza taldeko kide bat.

- Ingelerako irakasleak.

NOLA EBALUATU

1.- Ikaslea: ezagutza, erabilera, jarrerak, partehartzea...

2.- Komunitatea, ikastetxea ...(antolaketa, jarduerak, formazioa, partehartzea, jarrerak, erabilera, ezagutza...)

3.- Plangintza/plan estrategikoa (urterokoa eta bukaerakoa)

4.- Hizkuntza proiektua, dokumentua osatzea

Helburuen irizpide eta adierazleen bidez.

- Hasierako frogen bidez.
- Trebetasunetarako errubrikak, kontrol-orriak...
- Ikasleen hasierako egoera eta bukaeran berriro
- E. Diagnostikoa
- Behaketa orriak
- Hizkuntza proiektuan jaso dena
- Portfolioa
- Arloetako irizpide bateratuak eta adostuak